

Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2026/4

**DIRULAGUNTZA-DEIALDIA, NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEAN, INDUSTRIA
KULTURAL, ARTISTIKO ETA SORTZAILEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO, 2026an
JARDUERA KULTURALAK ETA ARTISTIKOAK EGIN ETA PROGRAMATU DITZATEN**

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrak xedatutakoa, zeina Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak 2005eko azaroaren 3an hasiera batez hartutako erabakiaren bidez onartu baitzuen –erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez zelako–. **Deialdi honetan aurreikusi gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** ([2006ko 21. NAO](#)n, [otsailaren 17koan](#), [argitaratua](#)).

2026. urterako Iruñeko Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuetako bat da kultura- eta arte-entitateei laguntza ematea. Plan horrek berariazko dirulaguntza-lerro bat jasotzen du 3. ildo estrategikoan (Kultura): kultura- eta arte-entitateek kultura- eta arte-proiektu eta -jarduerak egiteko deialdia. Horregatik guztiagatik, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, esparru eta oinarritzko ildoekin guztiz bat datorren tresna da.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emaila:	Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Zinegotzi Ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen Alorreko idazkari teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea:

Kulturaren arloko entitateei (enpresak edo profesionalak) dirulaguntzak emateko araubidea arautzea: edozein adierazpen motaren bidez interes artistikoa azaleratu eta Iruñean kultura garatzen laguntzen duten proiektuak dira deialdi honen xedea.

Halaber, dirulaguntzaren xede diren jarduerak kultur arloan emakumeen eta gizonezkoen aukera berdintasunaren alde egin behar dute prozesuaren fase guztietan (sorkuntza, gauzatzea eta ebaluazioa).

Era berean, kultura-sektorea indartu eta dibertsifikatzea du xede, eta,aldi berean, sektore horrek kultura-errealitatea berritzeko eta eraldatzeko duen gaitasuna bultzatzea.

Proiektuak 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarte gauzatuko dira osorik, eta Iruñeko udal-mugartean egin beharko dira.

Deialdia honako hauei zuzenduta dago: berezko nortasun juridikoa duten industria kultural, artistiko edo sortzaileak, kultura sustatu eta hedatzearen alde lan egiten dutenak, eta Iruñean jarduera kultural eta artistikoak programatu eta/edo egiten dituztenak.

Bereziki honako hauei zuzentzen zaie:

- **Arte eszenikoen jaialdiak, errezitaldiak, zikloak, topaketak eta lehiaketak.**
- **Musika-zikloak eta -topaketak.**
- **Jardunaldiak, lantegiak.**
- **Jaialdiak eta hitzaldi-zikloak, ikus-entzunezko proiektzioak eta zineforumak.**
- **Hiriko ondare historiko materialaren eta immaterialaren kontserbazioa eta hedapena sustatzen duten ikerketa, esku-hartze edo hedapen kulturalako proiektuak.**
- **Liburuak, irakurketa eta literatura sustatzeko jarduerak, espezialitate eta euskarri guztietan, eta beste edozein jardura kultural zein artistiko, argitalpenak salbu (beste deialdi baten xede baita).**

Entitate eskatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkezten ahalko du, proiektua eta eginen dituen jarduerak bilduko dituen.

Azkenik, proiektu bakar hori Iruñeko Udalak eskaintzen dituen bi kultura-deialdietatik bakarrera (entitateak edo industriak) aurkezten ahalko da.

2. Deialdiaren helburua:

Deialdi honen helburua kultura- eta arte-proiektuen eta -ekimenen garapena erraztea da, hartara suspertu egiten baitira tokiko kulturaren sorkuntza, ekoizpena, hedapena, kontserbazioa eta kudeaketa, adierazpen askea eta aniztasuna, herritarrei hurbiltzea, kultura-langileen profesionalizazioa, artistak eta kultura-eragileak kudeatzeko eta proiektatzeko jardunbide egokiak, eta halaber, proiektu horiek sustatzen dituzten pertsonen eta entitateen kudeaketa-egiturei eustea, kulturaren ekonomia bultzatuz.

Horrela, Udalak Iruñean kultura- eta arte-jarduerak programatzen eta/edo egiten lagundu nahi du, hiriko udal-erakunde eta -entitateek antolatutako kultura-jarduerak osatu edo ordeztuko baitituzte, hala herritarren bizi-kalitatea hobetzen lagunduz; jardura horien proiektzioak eta eraginak hiriko kultura-eskaintzaren dibertsifikazioan eta kalitatean eraginen du, eta herritarrengan eragin eta onura handia izanen dute.

3. Ekintza, proiektu, jokamolde eta jardura diruz lagungarriak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

- Proiektuak eta/edo jarduerak kulturaren eta/edo artearen arloko helburu bat garatzearekin lotuta egon beharko dute.

- Herritar guztiei irekita egon behar dute.

- Jarduerak Iruñeko udal-mugartean egin beharko dira.

Deialdira aurkeztutako proiektuaren aurrekontua 34.000 eurokoa izanen da gehienez. Proiektuak kostu handiagoa izanez gero, egoera hori azalpenean jaso beharko da.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira honako hauek:

- Deialdi honetara aurkeztu eta haren xedearekin bat ez datozen programa, proiektu, jardura edo jarduketak.

- Oro har herritarrei irekita ez dauden programa, proiektu, jardura eta jarduketak edota edozein motatako irizpide sexista, arrazista, xenofobo eta diskriminatzaileak aplikatzen dituztenak.

- Giza-eskubideak eta bizikidetzeta-balioak errespetatzen ez dituzten jarduerak, edo herritarrentzat iraingarriak gerta daitezkeen sinbolo zein elementuak dituztenak, haien duintasuna urratzen dutenak edo

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

indarkeriaren justifikazioa iradokitzen dutenak, baita alderdi politikoek edo izaera politikoko elkarteek gauzatutako jarduerak ere. Kanpoan geratuko da alderdi edo federazio politikoen publizitatea.

- Iruñeko Udaleko alor beraren edo beste alor baten beste deialdi batean Udalaren dirulaguntzen xede diren edo izaten ahal diren proiektuak. Zehazki, eta bereziki, haien xede edo helburua dela medio beste udal-alorretarako egokiagoak izan daitezkeenak, dela euskara sustatzekoak, herritarren partaidetzakoak, gizarteratzekoak edo berdintasunaren aldekoak edo gazterriakoak direlako, dela hizkuntzak jakitearekin, kirolarekin edo jardun publikoari dagokion beste edozein esparrurekin zerikusirik dutelako.

- Liburuak edo aldizkariak argitaratzea, euskarri tradizionalen edo euskarri magnetiko eta informatikoetan, edo diskoetxeen ekoizpenak, eduki artistiko, kultural edo zientifikoak dituztenak.

- Nagusiki eduki turistikoa duten proposamenak, baldin eta arte eszenikoen eta musikalen kultura-jarduera osagarria edo instrumentala bada.

- Irakaskuntza-planetan aurreikusitako irakaskuntza-proiektuak eta izaera artistikoa duten irakaskuntza-proiektu ez-arautuak.

Organo kudeatzailea ofizioz ariko da eskabide horiek dagozkien alorretara bidaltzeko.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 85.000 €

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontu-partida: 50/33401/479000

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Dirulaguntzaren zenbatekoa kasuan-kasuan xedatuko da, deialdi honen H apartatuan ezarritako balorazio-irizpideak aplikatuta zenbat puntu lortu diren eta zenbat diru erabilgarri dagoen eta horien arabera.

Proiektu batean diruz laguntzen ahal den gehieneko ehunekoa onartutako aurrekontuaren % 30 da, eta gehienez 10.000 euro.

Entitate bakoitzari emandako puntuetan eta puntuko prezioan oinarrituz lortutako dirulaguntza handiagoa bada eskatutako zenbatekoa baino, edo onartutako aurrekontuaren % 30 gainditzen bada, dirulaguntzaren zenbatekoa inguruabar horretara moldatuko da.

4. Hainbanatzeko aukera:

☐ BAI ☒ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdia izanez gero, urte anitzeko gastuetarako baimena eta konpromisoa dagokien aurrekontuetan ekitaldi bakoitzerako ezartzen den kredituaren menpe egonen dira.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	85.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETEKIZUNAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko betekizunak:

Dirulaguntza ematea zertan oinarritzen den eta egoera horretan dauden pertsonak edo entitateak izan daitezke onuradun, baldin eta ondoren aurreikusten diren inguruabarretan badaude, eta betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-ziok ukitzen ez baditu, salbu deialdiaren izaera kontuan izanik azken baldintza horren salbuespena egiten bada eta apartatu honetan hala egin dela adierazten bada.

Berariazko betekizunak: ☒ BAI ☐ EZ

- Legearekin bat eratutako pertsona juridikoak izatea, eta dagokien Erregistroan izena emanda izatea, eskabidea aurkezteko mugaegunean.

- Estatutuetan edo sorrera-aktan deialdiaren xedeari loturiko jarduerak egiteko helburuak jasoak izatea (kultura eta artea hedatzeko jarduerak egitea) edo normalean kultur jarduerak eta kultura eta ondarea sustatzeko, balioesteko eta babestekoak egitea.

- Kulturako profesionalen kasuan, autonomoak izan beharko dute, eta JEZen kulturarekin lotura duen epigrafe batean alta emanda egon.

- Eguneratuak izatea Iruñeko Udalarekiko tributu-betebeharrak; hori Iruñeko Udalak ofizioz egiaztatuko du, eta dagokion eginbidean jasoko du. Era berean, dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin aurretik, Udalak ofizioz egiaztatuko du ez dutela Udaleko Diruzaintzari diru-kantitaterik ordaintzeke.

- Zergen arloko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta izatea, egunean.

- Udal honek aurretik eman eta justifikazio-epea amaituta duten dirulaguntzarik ez izatea justifikatu gabe. Debeku hori automatikoki aintzat hartuko da, eta justifikaziorik ez dagoen bitartean iraunen du.

Berariaz honako hauek daude deialdi honetatik at:

- Deialdiaren xedearrekin bat ez datozen programa, proiektu, jarduera edo jarduketak aurkeztu dituzten entitateak eta/edo horiek Udalaren bestelako deialdi espezifiko batean jasotako helburuei zuzendutakoak badira.

- Zehapen administratibo edo penal irmo baten xede izan diren pertsonak, dagokien zehapenak ezarritako epean sexu-zioak direla eta diskriminatzeagatik.

Dirulaguntzaren izaera berezia dela medio, pertsona edo entitate onuradunak salbuetsita daude Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 10.2 artikuluan araututako betekizunak betetzen dituztela egiaztatzetik:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko betekizunak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

- **Dirulaguntzaren xede diren jarduerak egin eta proiektua gauzatzea.**

- **Deialdi honen kargura dauden dirulaguntzen onuradun diren entitate eskatzaileek nahitaez adierazi beharko dute –izapide telematikoan dagokion laukiaren bidez– ea ezinbestean bete behar dituzten Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 12.4 artikuluan ezarritako gardentasun-betebeharrak. Bete behar badituzte, izapide telematiko horretan bi agiri txertatu beharko dituzte: batetik, entitatearen zuzendaritza-karguen organigrama, haien eginkizunak, arduraldiak eta ordainsariak biltzen dituen agiria; eta bestetik, entitateak eskuragai dituen urteko azken kontuak biltzen dituenak.**

- **Halaber, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko 5/2018 Foru Legearen 12.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, erakunde onuradunek Iruñeko Udalarari eman beharko diote, Udalak aurretik eskatuta eta hamar eguneko epean, aipatutako 5/2018 Foru Legearen I. tituluan aurreikusitako betebeharrak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia.**

- **Behar bezalako publizitatea egitea, jakitera emate aldera Iruñeko Udalak finantzatu dituela dirulaguntza jaso duten programak, proiektuak edo jarduketak.**

- **Iruñeko Udalarari baimena ematea, egoki joz gero, diruz lagundutako programa, proiektu, jarduera edo jarduketaren garapenaren hedapena errazteko, xede harturik jarduketak bultzatzea.**

- **Udaleko teknikariei diruz lagundutako programa, proiektu, jarduera edo jarduketaren jarraipena egiten laguntzea.**

- **Men egitea organo emaileak egin beharreko jarraipen- eta egiaztapen-jarduketei, bai eta kontrol-organo eskudunek finantzaketa egiaztatu eta kontrolatzeko egiten ahal dituzten beste guztiei ere.**

- **Jardueraren komunikazioa eta hedapena publizitate- edo informazio-euskarrietan egitea, hizkuntza inklusiboa eta irudi inklusibo ez-sexistak erabiliz. Era berean, zuzenean sortzen diren dokumentuetan hizkuntzak inklusiboa izan behar du, eta Berdintasuneko Ordenantzak jasotako betebeharrak bete.**

- **Ekitaldi Publikoei eta Jasangarritasunari buruzko apirilaren 17ko 36/2024 Foru Dekretuan xedatutakoa betetzea, egiten diren ekitaldiei aplikatzekoa zaien orotan.**

- **Komunikazioari dagokionez, Iruñeko Udalak diruz lagundutako jarduerari buruzko argitalpen edo *story* bakoitzean, Kulturak sare sozialetan dituen profilak aipatu beharko dira. Horrela aipatu beharko da Udala:**

Facebooken eta Instagramen: @Irunakulturada (euskaraz) @Pamplonaescultura (gaztelaniaz)

Xn (Twitter zaharra): @Irunakulturada (euskaraz) @Pamplonacultura (gaztelaniaz)

TikTok: @pamplonakulturairuna

- Euskararen erabilerari dagokionez, Iruñeko Udaleko Euskararen Ordenantzak ezarritakoa aintzat hartu beharko da.

Proiektua dirulaguntza eman aurretik egin bada, ez da nahitaezkoa izanen (salbu eta azken deialdian dirulaguntza jaso badu) logoa material inprimatuan jartzea (liburuxkak, kartelak). Hala ere, hedapen telematikoan, webgunean eta hura sartzea ahalbidetzen duen beste edozein bidetan, aldatu egingen da eta Iruñeko Udalaren logotipoa sartuko da dirulaguntza ematen den unean eta aurreko apartatuko baldintzei jarraituz.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezalako publizitatea egin beharko dute dirulaguntzaren xede diren jarduerak edo proiektuak Udalak emandako finantzaketa publikoaren bidez egin direla hedatzeko. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenak duen tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafikoetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktutan, Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hau ez bada betetzen, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikularekin bat: ☐ BAI ☒ EZ
Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Proiektuan bi aldaketa mota egiten ahal dira.

FUNTSEZKOAK EZ DIREN ALDAKETAK

Funtsezkoak ez diren aldaketatzat hartuko dira aurrekontu ekonomikoa jaso ez den laguntzaren zenbateko berean beherantz birformulatza behartzen dutenak. Kasu horretan, erakundeak ezinen du aurrekontua murriztu eskatutako eta emandako zenbatekoaren arteko aldea baino gehiago.

Hau da, entitate batek 10.000 euroko dirulaguntza eskatu badu eta 8.500 euro eman bazaizkio, aurrekontua birformulatuz gero, ezin izanen da 1.500 euro baino gehiago murriztu.

FUNTSEZKO ALDAKETAK

Funtsezko aldaketatzat joko dira honako hauek:

- Proiektuaren helburuak eta jarduerak, eta proiektuaren talde hartzailleak ukitzen dituzten aldaketak
- Aurkeztutako aurrekontuaren aldaketak, baldin eta eskatutako eta emandako zenbatekoaren arteko

aldea baino gehiago jotzen badute.

Aldaketa horiek Iruñeko Udaleko Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorrak baloratu eta dirulaguntzaren organo emaileak baimendu beharko ditu aurrez. Aldaketa horiek egin ahal izateko, eskaera arrazoitua aurkeztu beharko zaio dirulaguntza kudeatzen duen unitateari, aldaketak justifikatzen dituzten inguruabarrak agertu eta berehala eta, betiere, aldaketak egin baino lehen.

Proiektua gauzatzean gertatzen ahal diren eta funtsezkoak ez diren gainerako gertakariak eta aldaketak dagokien memoria-txostenean jakinaraziko dira.

Aldaketak –funtsezkoak zein ez– egiteko baimen horiek emanen dira baldin eta eraginik ez badute aplikatutako balorazio-irizpideetan eta dirulaguntza emateko egintzaren norgehiagokan.

Jardueraren justifikazio-fasean aurretik adierazitako baldintzak betetzen dituzten aldaketak bakarrik joko dira egokitzen.

Baldin eta proiektua garatzen den bitartean entitate onuradunak deialdi honetan ezarritakoaren arabera aldeztu aurretik baimendu gabeko aldaketak sartzen baditu, zilegi izanen da jasotako diru-kantitateak itzularaztea, osorik edo hein batean, edo, hala badagokio, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzea, osorik edo hein batean. Proiektuaren barruan hainbat jarduera independente baldin badaude, baldintza horrek soilik baimendu gabeko aldaketak izan dituzten jarduerari eraginen die.

G. ESKABIDEAK AURKEZTEA:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako" delako izapidearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T apartatueta aipatutako agiriak.

Administrazio Publikoarekin elektronikoki harremanetan jartzera beharturik ez dauden pertsonak honako toki hauetan aurkeztu ahal dituzte eskaerak: Iruñeko Udaleko Erregistro Orokorrean, Kondestablearen jauregian (Kale Nagusia 2, behealdea), erregistro osagarrietan, edo, bestela, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako beste edozeinetan. Halaber, aurreko paragrafoan deskribatutako izapide telematikoen bidez ere aurkeztu ahal dira eskabideak.

2. Eskabideak aurkezteko epea: HILABETE BAT, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aitzina. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

Aipatutako epeetik aurreratu behar diren eskaerak ez dira onartuko.

3. Eskaerak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez, interesdunak edo dirulaguntza eskatzeko ordezkari nahikoa edukita ordezkari horren gaineko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere honi atxiki zaion I. ERANSKINAREN ereduarekin bat, edo, halakorik eginez gero, izapide telematikoen eskaera elektronikoenekin bat, eskabidearen aurkezpenari dagokion moduaren arabera. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4) apartatuan eta T letran aipatzen diren agiriak eta argibideak aurkeztuko dira.

Ez da beharrezkoa izanen G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea, baldin eta, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluekin bat,

jarduten duen Administrazioak jada bere eskuetan baditu edo beste edozein Administrazioak egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalarai baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskaera batek ez baditu betekizunak betetzen, ez badira deialdi honetan ezarritako agiriak aurkezten, edo bestela, ez bazaio Iruñeko Udalarai baimenik eman agiriok egin dituen administrazioaren bidez eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere alde aurretik ebazpena emanen delarik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

Entitate bakoitzak eskabide bakarra aurkeztuko du, barne hartuko dituen hala jardueraren deskribapen-txostena nola finantzaketa-plana.

Proiektuak bat etorri beharko du deialdiaren oinarrietako klausuletan adierazitako printzipio eta lehentasunekin, horietan adierazitako kasuren batean jasota egon beharko du, eta ezin izanen du Iruñeko Udalaren beste dirulaguntza-deialdi batzuen xederako aproposagoa delako haien dirulaguntza jasotzeko egokieran egon, kasu horretan deialdi horretara bideratuko baita.

Proiektuak behar bezain garaturik egon beharko du, eta haren helburuei buruzko informazioa eta baliabideak behar bezala justifikaturik.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Honako hauek frogatzen dituzten egiaztagiria: entitatea legeekin bat eraturik dagoela, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen dutenak, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela.

Ez da beharrezkoa izanen hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, deialdi honen II. ERANSKINArekin bat, edo, hala egin bada, izapide telematikoan ezarritakoarekin bat (eskaera nola aurkeztu den, horren arabera), ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrak eta deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta onuradun izateko ezein debeku-ziok ez duela ukitzen Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluaarekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin baditu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu, dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan

jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribaturi helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Aitorpena atxikita doan III. eranskina aurkeztuz eginen da, edo izapide telematikoa emandako jarraibideekin bat, eskaera nola aurkeztu den. ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

V eranskinarekin bat bete beharko da; ez da balioduna izanen beste formaturik ezta horren moldaketarik ere. Eredu hori nahikoa ez balitz, informazio gehiago aurkeztu ahalko da "informazio osagarria" izeneko artxibo bakar batean dena bilduta, eta ez da nahitaezkoa izanen hura ikustea.

Ekitaldi publikoei eta jasagarritasunari buruzko apirilaren 17ko 36/2024 Foru Dekretua betetzeko hartu diren edo hartuko diren neurrien deskribapena, aplikatzekoa den kasuetan.

g) Finantzaketa-plana. Proiektuaren datu ekonomikoak VI. eranskinean (deskargatzeko moduko Excela) jasotako ereduaren arabera bete beharko dira, eta ezinbesteko baldintza izanen da aurkeztutako aurrekontuak bere gastu eta sarrerak orekatuta izatea.

Entitateak aurkeztutako aurrekontuari diruz lagundu ezin diren gastuei dagozkien zenbatekoak kentzearen emaitza izanen da onartutako aurrekontua, deialdi honen L puntuan ezarritakoarekin bat.

h) Hala badagokio, zergei eta Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak betetzearen gaineko datuak kontsultatzeko baimena (VII. eranskina).

.

Modu telematikoa egiten ez diren izapideetarako, agiriei jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatutako, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Telematikoki egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kaitotutako (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkeztu dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko honako irizpide hauek hartuko dira kontuan: aurkeztutako proiektuak baloratzeko eta dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, Balorazio Batzordeak jarraian aipatzen diren alderdiak hartuko ditu kontuan, eta horiei ondoren azaltzen diren puntu-kopuruak emanen zaizkie, 100 punturen gainean:

1. Entitate eskatzailearen balorazioa. 7 puntu bitarte.

1.1. Entitatearen xedea eta helburuak (3 puntu bitarte).

Entitatearen helburuak eta xedea deialdiaren xedeari egokitzea baloratuko da.

Helburuak eta xedeak	Puntuazioa
o Oso egokiak	3
o Egokiak	2
o Ez oso egokiak	1
o Ez du erantzun	0

1.2. Deialdian antzeko entitatek ez egotea (3 puntu bitarte).

Antzeko entitateak	Puntuazioa
o Entitate bakarra	3
o Antzeko entitatearen bat	2
o Antzeko hainbat entitate	1

1.3. Egoitza fiskala Iruñean (1 puntu bitarte).

Entitate eskatzaileak egoitza fiskala Iruñean badu, puntu bat erdietsiko du; hala ez bada, 0 puntu.

2. Proiektuaren balorazioa (59 puntu bitarte).

2.1. Proiektuaren kalitatea ikuspegi kultural eta/edo artistikotik (30 puntu bitarte). Alderdi hauek baloratuko dira:

- Kalitate artistiko eta kulturala, proposamenaren ibilbidea, kultur arloan garrantzitsuak diren artistak egotea, proposamena zeharkakoa izatea (artistei buruzko eta proposamenaren ibilbideari buruzko nahikoa informazioa eman behar da, baloratzeko). 15 puntu bitarte.
- Koherentzia finkatutako helburuen eta haiek erdiestera bideratutako jarduera-proposamenen eta baliabideen artean: Koherentzia, hala kontzeptuan nola proiektua gauzatzeko elementu artistiko, tekniko, praktiko eta metodologikoetan. Proiektuaren lerroakadura eta sendotasuna, xedeari, testuinguruari, beharrei eta hartzaileei dagokienez. 15 puntu bitarte.

2.2. Proiektuaren interesa ikuspegi kultural eta/edo artistikotik (12 puntu bitarte). Honako alderdi hauek baloratuko dira:

- Proiektuaren motibazioa Honako galdera honi erantzun beharko lioke: zergatik egiten da proiektua eta zeri erantzun nahi zaio? Proiektua gauzatzearen beharra eta egokitasuna azaltzea (5 puntu bitarte).
- Proiektuak egindako ekarpena Iruñeko eta Nafarroako kulturaren sustapenari, edozein ikuspuntutatik (historikoa, lurraldekoa, gizartekoa, etab.), baita zuzenean Iruñeari lotutako artistak sustatzeari ere (3 puntu bitarte).
- Udalerriaren nortasun kolektiboa sustatzea (3 puntu bitarte).
- Aurkeztutako programak denboran jarraitzeko borondatea edukitzea (1 puntu bitarte).

2.3. Berrikuntza eta originaltasuna (8 puntu bitarte).

Kontuan hartuko da proiektuaren izaera berritzailea, originaltasuna edo berezitasuna, formatu berrien esperimentazioa edo gutxi hedatutako gaien tratamendua, eta honako hauek baloratuko dira:

- Arte-hizkuntzetan eta berrikuntza-hizkuntzetan ikertzeko eta esperimentatzeko gaitasuna kultura-edukiak sortzeko moduetan, egituretan eta prozesuetan, bai eta garaikidetasunaren kontakizunen, gaien edo narrazioen aniztasuna eta artearen eta kulturaren hainbat eremurekin duen lotura bultzatzeko gaitasuna ere. Sorkuntza garaikidea ikertzea edo laguntzea, sormena sustatzea, sormen-hizkuntzak esperimentatzea eta berritzea; kultura-komunitaterako baliabide materialak eta immaterialak antolatzeak eta mobilizatzeko gaitasuna. 4 puntu bitarte.
- Aintzat hartuko da proposamenak esperientzia berezia eta originala eskaintzeko duen gaitasuna, ikuspegi berri edo ezohiko batetik kultur eskaintza aberasten duena. Gainera, kontuan hartuko da udal-jarduerak betetzen ez dituzten hutsuneak "betetzea". Proiektuek helburu duten kultura-ingurunean bakarrik direla erakutsi behar dute, ikuspegiari, formatuari, gaiari edo gauzatzeari dagokienez. 4 puntu bitarte.

2.4. Lankidetza, deszentralizazioa eta ikusleak erakartzea (9 puntu bitarte). Alderdi hauek baloratuko dira:

- Proiektuaren profila eta irismena, ekitaldia non egiten den eta hurbileko kultura-eragileekin lankidetza-programak eta -sareak garatzea, bai eta tokiko, estatuko edo nazioarteko instituzio eta eragile publiko eta pribatuekin ere (3 puntu bitarte). Irizpide honen bidez baloratuko dira lankidetza txertatzearekin eta beste batzuekin aliantzak egitearekin zerikusia duten ekimenak, proposatutako proiektuaren diseinuan, gauzatzean eta ebaluazioan islatuak. Beharrezkoa izanen da eragile bakoitzak nola eta zein prozesutan parte hartzen duen zehaztea, bai eta baterako lan horiek proiektua nola hobetzen duten ere.

Lankidetza-maila	Puntuazioa
o Handia	3
o Zuzena	2
o Txikia	1
o Batere ez	0

- Programazio-eskaintzaren deszentralizazioa (3 puntu bitarte) Egindako jarduerak Iruñeko auzoetan banatzea baloratuko da.

Jarduerak deszentralizatzea	Puntuazioa
o 3 auzotan edo gehiagotan egotea	3
o 2 auzotan egotea	2
o Auzo bakarrean egotea	1

- Proiektuak ikusle berriak erakartzen laguntzeko duen gaitasuna, hiriko kultura-ehunaren jasagarritasun-faktore gisa (3 puntu bitarte). Entitateak publiko berriak bitartekaritza- eta hezkuntza-ekintzen bidez erakartzeko eginiko ahalegina baloratuko da, arreta berezia eskainiz 0-11 urteko haurrei eta 12-35 urteko gazteei.

Publiko berriak erakartzea	Puntuazioa
o Handia	3
o Ertaina	2
o Txikia	1
o Batere ez	0

3. Proiektuaren plangintza, komunikazioa eta ebaluazioa (8 puntu bitarte).

3.1. Plangintza (3 puntu bitarte). Baloratuko da ea proiektuaren helburuak ongi egokitzen zaizkien egin beharreko lanen antolaketari, erabilitako metodologiari, egutegiari, proiektua gauzatzeko baliabideei eta planifikatutako ekintzei. Ez da jardueren zerrenda bat ebaluatuko, baizik eta azalpen arrazoitu bat, proposatzen den egutegiaren arrazoiari buruz eta egutegiak proiektuaren helburuak erdiesten nola laguntzen duen azaltzeko.

3.2. Komunikazioa eta hedapena (2 puntu bitarte)

Komunikazio-estrategia proiektuaren helburuak betetzeko egokia den baloratuko da. Kontuan hartuko dira aurreikusitako komunikazio-ekintzak, proiektua hedatzeko erabiliko den sustapen- eta/edo dibulgazio-materiala, webguneetan edo sare sozialetan nolako eta zenbaterainoko zabalkundea egin den, edo proiektuaren komunikazio-mugarriak.

Hedapena eta Komunikazioa	Puntuazioa
o Oso egokia	3
o Egokia	2

- o Ez oso egokia 1
- o Ez nahikoa 0

3.3. Ebaluazioa (3 puntu bitarte) Neurketa- eta ebaluazio-tresnak baloratuko dira, eta erabilitako adierazleak, horien eragina, ezarri beharreko metodologia, laguntzaileek fase honetan izandako inplikazioa...

Ebaluazioa	Puntuazioa
o Oso egokia	3
o Egokia	2
o Ez oso egokia	1
o Ez nahikoa	0

4. Genero-ikuspegia (9 puntu bitarte).

Generoen arteko berdintasunaren ikuspegia aintzat hartuko da, bai entitatearen antolamenduan, bai programaren helburu eta ekintzetan.

4.1. Entitatearen antolaketa (4 puntu bitarte).

- Dela eratze-eskrituran dela entitatearen estatutuetan gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea helburu gisa agertzeagatik (1 puntu). Horretarako, eratze-eskritura edo estatutuak aurkeztu beharko dituzte, eta adierazi zein apartatutan dagoen jasota informazio hori.
- Entitatearen zuzendaritza-postu edo organoetan gutxienez % 40 emakumeak direla egiaztatzeagatik (1 puntu). (Indarrean den batzordearen eratze-akta aurkeztu beharko da).
- Azken hiru urteetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko jardueretan izandako esperientziagatik eta ibilbideagatik, arlo horretan egindako jarduketa eta lanik behinenak egiaztatu beharko dituztelarik (1 puntu).
- Entitateak Berdintasun-plana edukitzeagatik (1 puntu).

4.2. Aurkeztutako proiektuan genero-ikuspegia txertatzea (5 puntu bitarte). Genero-ikuspegia proiektuan zenbateraino txertatu den ebaluatuko da, aintzat hartuta planteatutako lan-arloetan, jardueretan eta proposatutako helburuetan nola ezarri den. Baloratuko da proiektuek modu espezifiko eta kritikoan jorratzea txertatze hori edo beren garapenean sartzea genero-rolak eta -estereotipoak haustearekin eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasun eraginkorrari laguntzearekin zuzenean lotutako ekintza positiboak.

- o Erabatekoa - Genero-ikuspegia erabat eta zeharka txertatu da proiektuaren arlo guztietan. (5 puntu).
- o Sendoa - Genero-ikuspegia argi agertzen da proiektuaren funtsezko arlo batzuetan. (4 puntu).
- o Neurrizkoa - Genero-ikuspegia alderdi batzuetan aplikatzen da, baina partzialki. (3 puntu).
- o Mugatua - Genero-ikuspegia aipatzen da, baina aplikazio zehatza urria da. (2 puntu).
- o Eskasa - Genero-ikuspegia ez da ia existitzen proiektuan. (1 puntu).
- o Ez da agertzen - Genero-ikuspegia ez da agertzen proiektuan. (0 puntu).

5. Ingurumenarekin eta jasangarritasunarekin lotutako irizpideak txertatzea (2 puntu bitarte).

- o Entitateak eta proiektuak ez badute jasotzen jasangarritasunari buruz informatzeko eta sentsibilizatzeko oinarriak eta ingurumen-irizpiderik ez badute (0 puntu)
- o Entitateak eta proiektuak jasotzen badituzte ingurumen- eta jasangarritasun-irizpideak dituzten oinarriak eta ekintzak (jasangarritasunaz kontzientziatzeko eta hura sustatzeko ekintzak, hondakinen kudeaketa, mugikortasun jasangarria, plastikoen murrizketa, energia-efizientzia) (1 puntu)
- o Erakundeak jasangarritasun-plan bat badu (ekintzak, jarraipena eta ebaluazioa) (2 puntu)

6. Baloratuko da proiektuak duen gaitasuna kultura eskuratzeko eskubidea sustatzeko eta kultura-aniztasuna, tolerantzia, irisgarritasuna, belaunaldien arteko harremanak edo zaugarritasun egoeran

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

dauden pertsonen eta kolektiboen integrazioa bultzatzeko (3 puntu bitarte).

Kultur aniztasuna	Puntuazioa
o Handia	3
o Egokia	2
o Txikia	1
o Ez dago	0

7. Euskararen integrazioa entitatean eta proiektuan (2 puntu bitarte).

- o Entitateak euskara aintzat hartzen ez badu bere oinarrietan, jardueran edo proiektuan (0 puntu)
- o Entitateak euskaraz egiten baditu proiektuan antolatutako ekintza edo jardueren % 40 arte (1 puntu)
- o Entitateak euskaraz egiten baditu proiektuan antolatutako ekintza edo jardueren % 40 baino gehiago (2 puntu)

8. Proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa eta aurrekontu-koherentzia (10 puntu bitarte).

8.1. Koherentzia diru-sarreraren eta gastuen egituraren (7 puntu bitarte). Baloratuko da aurrekontuko partidak egokitzea eta aurrekontuak berak ekonomia, efizientzia eta jasagarritasuneko printzipioekin bat egitea, bai eta jarduera egiteko behar diren partida guztiak ekonomikoki zuzen zedarritzea eta koherentzia eta oreka edukitzea ere (diru-sarreraren eta gastuen oreka, langileendako baliabideen eta proiektuaren gainontzeko gastuen banaketa ekitatiboa...).

8.2. Diru-sarreraren guztizkoaren gainean finantzaketa-iturri propioak (bazkideen kuotak, txarteldegiko diru-sarrerak, ekoizpenen komertzializazioa, babesletzak...) bilatzeko gaitasuna baloratuko da (3 puntu bitarte). Proportzio honen arabera emanen dira puntuak:

Diru-sarrera propioen ehunekoa	Puntuazioa
o % 80 edo gehiago	3
o % 50 eta % 80tik behera bitarte	2
o % 20 eta % 50etik behera bitarte	1
o % 20tik behera	0

Inolaz ere ez dute laguntzarik jasoko 2. apartatuan 20 puntu lortu ez duten proiektuek. Proiektuaren balorazioa.

66.800 euro izanen da gehieneko aurrekontua, eta haren gainean eginen dira dirulaguntza bakoitza emateko kalkuluak, hori delarik justifikatu beharreko kopurua, betiere ezertan galarazi gabe jarduera horien kostua handiagoa izaten ahal dela eta hori ager daitekeela jasota ekonomia-koadroetan proiektuaren aurkezpenean.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeke, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:

Batzordeburua:	Maider Beloki Unzu, Kulturako, Jaietako eta Kiroleko zinegotzi ordezkaria / Beste Zinegotzi Ordezkari bat.
Batzordekideak:	
1.	Íñigo Gómez Eguiluz, Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko zuzendaria/ Beste alor bateko zuzendari bat
2.	José Luis Mosquera Sande, Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko teknikaria / Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko beste teknikari bat
3.	Aitor Olaetxea Mikeo, Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko teknikaria / Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko beste teknikari bat.

Idazkaria:	Carmen Ruiz Alonso, Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko administraria / Kulturako, Jaietako eta Kiroleko Alorreko beste administrari bat.
-------------------	---

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENAREN JAKINARAZPENEA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat eginen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat, non egiaztatuko baita eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela ezen pertsona zein entitate onuradunek halakoak izateko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela. Espedientea balorazio-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan aurreikusten diren balorazio-irizpide objektiboen arabera.

Balorazio-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat eginen du, ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio. Instrukzio-organoak zainduko du dagozkien alorretara bidaltzen direla duten xede edo helburua dela medio Udalaren beste alorren baten dirulaguntzetara hobeto egokitzen ahal diren proiektuak.

Balorazio-prozesuan batzordeak ezein bidetatik argibideak eskatzen ahal dizkie entitateei, deialdira aurkeztutako proiektuetako zalantzak argitu edo hainbat alderdi egiaztatzeko.

PROZEDURAN ONARTUA/BAZTERTUA IZAN IZANAREN GAINEKO KOMUNIKAZIOA

Instrukzio organoak egindako aurre-ebaluazio txostena kontuan harturik, izapide-ebazpen bat emanen da, eta horren berri emanen zaie laguntzaren eskatzaileei, hartara jakin dezaten beren eskaera aintzat hartu dela eta ezarritako baldintza formalak betetzen dituela, eta onartua izan dela, edo, aitzitik, baztertua izan dela.

ESKAEREN AURREZ AURREZKO DEFENTSA

Eskaerak hobeki ezagutzeko bide gisa, Balorazio Batzordeak proiektuak aurkeztu eta aurrez aurre defendatzeko txanda bat ezartzen ahalko du. Aurkezpenak argia eta zehatza izan behar du, gehienez ere hamar minutuan egitekoa, eta gero batzordekideek egindako galdera-saio batekin osatu ahal izanen da.

EBAZPEN-PROPOSAMENA ETA PROIEKTUAREN BIRFORMULAZIOA

Banan-banan jakinaraziko zaie entitate onuradunei dirulaguntzak emateko ebazpen-proposamena, 5 egun balioduneko epean ebazpena onartzen dutela berrets dezaten edo proiektua birformula dezaten jarduerari edo alderdi ekonomikoari dagokienez.

Ebazpen-proposamenaren ondorioz entitateak proiektua aldatu behar badu, 5 egun balioduneko epea izanen du programa berriz ere planteatzeko. Nolanahi ere, birformulazio horrek errespetatu egin beharko ditu hala dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua nola dirulaguntzei dagozkien balorazio-irizpideak.

Proposamena onartzeko, entitateak oinarri hauetako VIII. eta IX. eranskinak aurkeztu beharko ditu.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da proiektuaren aldaketez bezainbatean deialdi honen F apartatuan aipatutakoa.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: gehienez ere sei hilabetekoa izanen da.

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: dirulaguntzak jasoko dituzten pertsona edo entitate eskatzaileak, laguntzen zenbatekoak eta, eskaerak ezetsirik izanez gero, haien eskatzaileak diren pertsonak edo entitateak.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta hura eskatzaileei

jakinaraziko zaie, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan agindutakoarekin bat.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ
- Tramitatzeko eskumena duen organoaren erregistroan eskabidea sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea zenbatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzeko beharra: ☒ BAI ☐ EZ

Nafarroako Aldizkari Ofiziala eta Iruñeko Udalaren Egoitza elektronikoa

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. GASTU DIRUZ LAGUNGARRIAK:

1. Gastu diruz lagungarrien zehaztapena:

Gastu diruz lagungarritzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ezbairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek dira diruz lagungarriak:

a) Zuzeneko kostuak:

- Jarduera-programa gauzatzeko beharrezkoak diren langileen edo artisten soldata-kostuak eta gizarte-segurantzakoak, barne harturik entitate onuradunean zerbitzuak ematen dituztenak eta xede horretarako kontratatzen ahal direnak.

Entitatean lanean ari diren langileen kasuan (betiere zuzeneko kostuak badira), jarduera gauzatzeko lanetan zenbat denbora eman eta horri dagokion alde proportzionala egotziko zaio proiektuari.

- Langileen dietek eta joan-etorriek eragindako gastuak, betiere justifikaturik badaude eta proiektua gauzatzeko guztiz beharrezkoak badira, hemen jasotako irizpideetan oinarriturik:

- Ostatu hartzeko gastuak: bakarrik Nafarroaz kanpotik badatoz, eta gehienez 80 euro gau bakoitzeko.

- Mantenu-gastuak: otordu bakoitzari (bazkaria eta afaria) gehienez 20 euro aplikatuko zaizkio.

- Joan-etorriak. Gastu hori diruz lagungarria izanen da tartean artistak, hizlariak eta abar daudenean. Entitateko kideen joan-etorriak ez dira diruz lagungarriak, ezta bileretara joatea ere.

Nork bere autoa erabiliz gero, 0,34 euro kilometroko.

Hegazkin, tren edo bestelako garraio publikoan bidaiatuz gero, gehienez turista klaseko ohiko txartelaren zenbatekoa ordainduko da.

- Proiektuaren ekintzak gauzatzeko beharrezkoak diren kanpoko bitartekoak kontratatzeak eragindako gastuak –hala nola ekipoen eta baliabide materialen alokairuak, ondasun kontsumigarriak, zerbitzu

profesionalak edo artistikoak, aseguruak eta beste batzuk-.

- Proiektuak barne hartzen dituen jarduerak ezagutzera emateko, horien publizitatea egiteko eta, halakorik bada, merkaturatzeko gastuak.
- Diruz lagundutako jarduera garatzeko bakarrik diren material eta ondasun suntsikorrak eskuratzea, pandemia-egoeran agintari eskudunek ezarritako neurriak eta murrizketak betetzetik erator daitezkeenak barne.
- Tokikoak ez diren tributuak dirulaguntzaren xede izan daitezke, dirulaguntzaren onuradunak zuzenean ordaintzen baditu.

Inola ere ez dira dirulaguntzak estaltzeko moduko gastutzat joko berreskuratzen edo konpentsatzen ahal diren zeharkako zergak. Zehazki, BEZari dagokionez, benetako kostuek eraginda onuradunak ordaindu dituen gastuen kantitateak izanen dira bakarrik dirulaguntzen xede, betiere kengarriak ez badira; izan ere, kengarriak izan badaitezke, onuradunak berreskuratzen ahalko ditu zergaren zenbatekoak. Onuradunak modu frogagarrian egiaztatu beharko du inguruabar hori.

Soldata-gastuekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- Langileen nominak
- Kotizazioen likidazioaren ordainagiria (KLO -lehengo TC1)
- Langileen izenen zerrenda (LIZ -lehengo TC2)

Hilabete bat baino gehiago egotziz gero, hilabetea banakatuta agertu beharko da eta dirulaguntzari egotzitako hilabeteetako gizarte-aseguruak gehitu beharko dira.

- Egindako PFEZaren atxikipenei buruzko 111 eta 190 ereduak.

b) Zeharkako kostuak / egiturazko gastuak:

Entitate onuradunak garatzen dituen zerbitzu edo jardueren gastu komunak dira, hau da, proiektua garatzeko beharrezkoak izan arren proiektuari eskusiboki lotuta ez dauden gastuak. Zeharkako kostuen artean sartuta daude hala entitate onuradunak garatzen dituen jardueretako batzuei egozten ahal zaizkion gastu orokorrak nola ezein jarduera zehatzi egotzgarri izan ez eta diruz lagundutako jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren gastu finkoak. Proiektu bakoitzak eragindako zeharkako kostuek proiektuaren aurrekontuan sartuta egon behar dute, eta ezin izanen dute jo, inongo kasutan, proiektuaren guztizko kostuaren % 15 baino gehiago, eta betiere jarduera noiz gauzatu eta aldi horri dagozkion gastuak izan behar dute.

Hona, besteak beste, zeharkako kostuek barne hartzen dituztenak:

- Alokairua eta lokala mantentzeko beste gastu batzuk, pertsona edo entitate eskatzailearen egoitza badira, betiere hura bada titularra jabetza-, errentamendu- zein lagapen-erregimenean edo beste edozein titulu juridikoren pean. Kontzeptu honetan berariaz baztertzen da hipoteka-kuoten ordainketa.
- Pertsona edo entitate eskatzailearen egoitza den lokalari egotz dakizkiokeen elektrizitatearen, uraren, gasaren, telefonoaren edo Interneten hornidurak.
- Entitateko langileei egotz dakizkiokeen telefono eta Internet mugikorren hornidurak, entitate eskatzailea bada titularra eta ordaintzen duena, diruz lagundu daitekeen aldi, eta faktura entitatearen izenean badute.
- Pertsona edo entitate eskatzailearen lan-kontratuko langile arrunten eta zuzendaritzako langileen gastuak, langileen soldadak, Gizarte Segurantzako kotizazioak eta PFEZa barne. Kontzeptu honetan sartzen da proiektuaren zuzendaritza artistikoa, entitate eskatzaileko kide batek egiten duenean.
- Pertsona edo entitate eskatzailearen lan-, zerga- edo kontabilitate-aholkularitzako gastu arruntak, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta hori behar bezala prestatu edo gauzatzeko ezinbestekoak badira. Kontzeptu honetatik kanpo geratzen dira, berariaz, auzietan parte hartzetik erator daitezkeen aholkularitza edo lege-laguntzako gastuak.
- Jarduerari erabat egotzi ezin zaizkion aseguru-gastuak.

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Diruz lagundutako proiektuari egozten zaizkion fakturak dituzten zerbitzu eta hornidurek eta lan-kontratuko langileen ordainsari profesionalen eta nominen zenbatekoek merkatuko prezioen arabera izan beharko dute.

Gastu diruz lagungarrietan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen benetan ordaindutako gastua:

☒ BAI ☐ EZ

Honako hauek ez dira inoiz gastu diruz lagungarritzat joko:

- Inbertsio-gastuak, hau da, ondasun inbentariagarriak erostetik eratorritakoak, hala nola higiezinak, altzariak, tresnak, makinak, garraio-elementuak, ekipamendua, eta, oro har, erakunde onuradunaren ondarea handitzen duen beste edozein.
- Jardueretara joan edo horietan parte hartu dutenendako protokolo-jarduerak, hau da, lunchek, bazkari-afariek, ospakizunek eta abarrek eragindako gastuak.
- Jardueretara bertaratzen diren edo horietan parte hartzen duten pertsonendako ekarpenak, diruz zein gauzaz. Berariaz baztertzen dira opariei eta diru- edo gauza-hobariei lotutako gastuak.
- Entitate eskatzailearen egoitza den lokala eraberritzeko edo birgaitzeko obren ondoriozko gastuak.
- Elkarte edo erakunde profesional, sindikal edo antzekoetako afiliazio- edo kide-kuotak.
- Errekargu eta zehapen administratibo eta penalen gastuak; prozedura judizialen gastuak, aholkularitza eta lege-laguntzakoak barne.
- Entitateko langileen ordainsariak, baldin eta Lanbide arteko Gutxieneko Soldata halako 2,5 gainditzen badute.
- Proiektua gauzatzeko guztiz beharrezkoak ez diren gastu-kontzeptuak eta haien zenbatekoa modu fidagarrian zedarriturik ez dutenak.

2. Gastu diruz lagungarriak egiteko epea: *Justifikazio-aldiaren epea amaitu baino lehen, betiere gastuek dirulaguntzen xede diren jarduerekin harreman zuzena badute. Edozein kasutan, 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoak diren eta 2026ko ekitaldian egindako jardueri dagozkien fakturak baino ez dira onartuko.*

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoak: % 100

Erakunde onuradunak aurreikusten badu jardueraren gauzatze partziala adierazitako ehunekoan azpikontratatzeari hirugarren pertsonekin, berariaz adierazi beharko du dirulaguntzaren proiektuaren eskaera-dokumentazioan.

Azpikontrataturako enpresak edo erakundeak lankidetzaren betebeharrari lotuta egon behar dira, behar bezala egiaztatu ahal izateko deialdi honetan diruz laguntzen ahal diren gastuen izaerari eta zenbatekoari dagokienez ezarritako mugak betetzen direla Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren (DOO) 30.6. artikuluekin bat.

Entitate onuradunak inola ere ezin izanen du hitzartu dirulaguntzaren xede diren jarduerak osorik edo zati batean Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30.7 artikuluan zehazten diren pertsona eta

entitateekin egitea.

Azpik kontratatutako enpresak edo erakundeak aurreko apartatuan (VIII. eranskina) deskribatutako kasu bakar batean ere ez dagoela egiaztatzen duen aitortpena aurkeztu beharko du.

OHARRA: Onuradunarekin lotutako pertsonatzat edo erakundetzat joko da haren barruan dagoena elkartekide, federatu edo antzeko gisa.

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 68.2 artikuluan ezarritakoarekin bat, lotura dagoela ulertuko da inguruabar hauetako bat betetzen duten pertsona fisiko edo juridikoekin edo nortasunik gabeko elkarrekin:

a) Honelako harremanen bat duten pertsona fisikoak: ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremanez lotuta daudenak, laugarren mailarainoko odol-ahaidetasuna edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasuna.

b) Aldizkako ordainketen bidez ordaindutako lan-harremana duten pertsona fisiko eta juridikoak.

c) 2. apartatuan aipatzen den onuradunaren kide elkartuak izatea eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 11. artikuluen 3. apartatuan aipatutako nortasun juridikorik gabeko erakundeetako kide edo partaideak izatea.

d) Sozietate bat eta bere bazkide nagusiak edo horien kontseilari edo administratzaileak, baita ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremana duten pertsonak eta laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunezko edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasunezko ahaideak ere.

e) Balore Merkatura arautzen duen uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 4. artikuluen arabera, talde bereko kide izateko eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten sozietateak.

f) Pertsona juridikoak edo nortasunik gabeko elkarrekin eta horien legeko ordezkariak, ugazabak edo administrazioan dihardutenak, bai eta ezkontideak edo antzeko afektibitate-harremana duten pertsonak eta laugarren mailarainoko odol-ahaidetasunezko edo bigarren mailarainoko ezkontza-ahaidetasunezko ahaideak ere.

g) Pertsona juridikoak edo nortasunik gabeko taldeak eta pertsona fisikoak, juridikoak edo nortasunik gabeko taldeak, baldin eta legeko arauen, estatutuen edo kontratu-akordioen arabera lehenengoen morkinean ehuneko 50etik gora parte hartzeko eskubidea badute.

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Justifikatu egin behar da finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta diruz lagundutako jarduerari aplikatzea: ☒ BAI ☐ EZ

Zenbatekoa edo ehunekoa: emandako dirulaguntzak ezinen du inolaz ere onartutako aurrekontuaren % 30 gainditu, oinarri hauetako C.3. apartatuan ezarritako mugekin bat.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Bateraezinak izanen dira Iruñeko Udaleko alor beraren edo beste alor baten beste deialdi batean Udalaren dirulaguntzen xede diren proiektuak.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-

sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatuko balitz, bidezkoa izanen da kostuaren gainetik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Nola ordaindu: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

- ☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondorengo ordainketa.
- ☒ Konturako ordainketa:
- ☐ Ordainketa zatikatua:
 - ☐ Ordainketa aurreratua:
 - ☒ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Oro har, ordainketa honela egingen da: % 50 ordainduko da deialdia ebazten den unean bertan, eta gainerako % 50a, deialdiaren xede den jarduera egin eta justifikazioa onetsi eta gero.

Dirulaguntzen entitate onuradunei proposatutako jarduerak egitea errazte aldera, eta dena delako entitateak jarduera kultural eta artistikoendako dirulaguntzen azkeneko hiru deialdietakoren batean dirulaguntzarik jaso eta hori oso-osorik justifikatu badu, itzulketa-espediente ireki beharrik gabe edo justifikazio desegokia aurkezteagatik posta elektronikoz behin eta berriz errekerimendurik egin beharrik gabe, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 33. artikuluekin bat, honako hau ordaintzeko aginduko da: dirulaguntzaren % 100, deialdia ebazten den unean bertan.

Dirulaguntza justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada, edo behar adinako justifikaziorik aurkezten ez bada, dirulaguntza itzuli beharko da, osorik edo parte batez, betiere kontuan harturik zenbateraino ez den bete eta zer beste inguruabar izan diren tartean.

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

2. Bermeen eraketa:

- ☐ BAI ☒ EZ
- Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

- ☒ Justifikazio-kontua:
- ☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).
 - ☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.
Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ
 - ☒ Justifikazio-kontu erraztua. Justifikazioa Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) gaitutako "Dirulaguntzen justifikazio elektronikoa pertsona juridikoendako" izapidearen bidez aurkeztu beharko da, IV. ERANSKINEAN jasotako azalpenei men eginez, eta oinarri hauetako T apartatuan –"Eranskinen aurkibidea"– adierazten diren eranskinak aurkeztuz. Elektronikoki harremanetan jartzera beharturik ez dauden pertsonen oinarri hauen G.1 apartatuan

adierazitako modu berean aurkezten ahalko dute beren justifikazioa.

Agiri hauek aurkeztu behar dira:

1. Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta errealitatearekin bat datozela dioen erantzukizunpeko adierazpena, X. eranskineko ereduarekin bat.

2. Dirulaguntzaren xede den proiektua egin izana egiaztatzen duen jarduketa-memoria. Bertan, esplizituki eta argi azaldu beharko ditu egindako jarduerak, eta proiektua nola garatu den islatu beharko du interesari, berrikuntzari, sareetako lanari eta ikusleak erakartzeari dagokienez. Era berean, egindako plangintza, haren komunikazioa eta proiektuaren ebaluazioari dagokionez, emaitzak erakusten dituen dokumentazio guztia aurkeztu beharko da, egin beharreko proiektuan adierazitako ebaluazio-sistemen arabera.

Ekitaldi publikoei eta jasangarritasunari buruzko apirilaren 17ko 36/2024 Foru Dekretua betetzeko hartu diren nahitaezko jasangarritasun-neurrien berri eman behar da, aplikatzekoa den kasuetan.

3. Hedapenaren memoria. Honako hauek barne hartuko ditu:

- Publizitatea eta argitalpenak komunikabide tradizionaletan: komunikabide mota, izena eta txertatze-kopurua jasotzea.
- Hedapena hedabide digitaletan: komunikabide mota (webgunea edo sare sozialak), izena eta argitalpen kopurua jasotzea.
- Ekitaldi bakoitzeko argitalpenen sareetako eta webguneetako elkarrekintzen rankinga.
- Zabalkunde osoaren irudiak, udal logotipoa agertzen dutenak.
- Pentsako dosierra / clipping-a.

4. Diruz lagundutako jarduera dela-eta egindako gastu guztien justifikazio-memoria, XI. eranskinarekin bat. Egindako gastuen (zuzeneko kostuak eta zeharkakoak bereizita) eta lortutako diru-sarreraren zerrenda izenpetua eta ordenan zenbakitua, kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, non honako hauek identifikatuko baitira: hartzekoduna, ordainketa-agiria, zenbatekoa, jaulkitze-data eta ordainketa-data. Ez da dagozkien eranskinetan aurkezten diren bestelako formaturik onartuko.

Honako bi aukera hauetako bat hautatzen ahal da:

a. Aurkeztea diru-sarrera guztiak (dagozkien egiaztagiriekin) eta faktura guztiak (dagozkien egiaztagiriekin) justifikatzen dituen dokumentazioa.

b. Diru-sarrera eta gastu guztiak aurkeztu ezean, eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, GASTU ETA ORDAINKETEN egiaztagiria eskatuko dira, dirulaguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko. Egindako gastuak eta diruz lagundutako gastuen ordainketak egiaztatzeko agirien ehuneko hoge gutxienez eskatuko da, betiere horiek ahalbidetu beharko dutelarik diruz lagundu eta egindako gastu osoaren ehuneko hogeita hamar gutxienez egiaztatzea. Kontuan izanik elkarte askok abenduaren amaieran justifikatzen dutela, egoera hori kontuan hartu beharko da berehala aurkeztu behar direlako.

Egindako gastuak osagai guztiak jasotzen dituzten fakturen bitartez egiaztatuko dira, eta inongo kasutan ez dira onartuko ordainagiri hutsak edota kuxako tiketak. Fakturak indarra duten legeen arabera jaulkiko dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren izena eta IFZa, fakturaren jaulkitze-data, kontzeptua, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehakapena eta aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Halaber, PFEZaren atxikipena eta ordainketa ere zehaztuko dira. PFEZaren eta BEZaren kasuan, kopuru horiek Ogasunean sartu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Ez da 100 €-tik gorako ordainketarik onartuko eskudirutan.

Jarduera finantzatu duten diru-sarrerak edo dirulaguntzak (horien zenbatekoa eta jatorria barne). Honako hauek aurkeztuta egiaztatuko dira: ebazpenak, leihatilako orriak, diru-sarrerak jasota uzten dituzten babesletza-kontratuak eta bankuko sarrera-egiaztageria.

5. Halakorik behar balitz, ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko geldikinak eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzultzekoa.

Txosten bat eman beharko da Udaleko teknikari eskudun batek sinatuta, non espresuki adierazita geldituko baita guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak.

☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

☐ Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: justifikatzeko agiriak aurkezteko epea 2026ko azaroaren 11 (egun hori barne) izanen da, urriaren 15a baino lehen proiektuak amaitu dituzten entitate ororendako. Salbuespenez, data horretan diruz lagundutako jarduera guztiak amaitu ez badira eta justifikazioa ezin bada data horretan osorik aurkeztu, elkarteek 2026ko abenduaren 31ra arte aurkezteko aukera izanen dute.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Zilegi izanen da hala jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, nola berandutze-interesak galdatzea –dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan ageri diren itzularazteko arrazoiak batek ukitzen badu onuraduna, eta apartatu honetan aurreikusitako gainerako kasuetan.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

Dirulaguntzaren esparruan zer emaitza eta jarduera egiteko konpromisoa hartu eta horiek osoki edo parte batez betetzen ez badira, gastuak justifikatzeko agiririk aurkezten ez bada, aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada edo ezarritako epetik kanpo aurkezten bada, jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko da, edo, halakorik balitz, ordaintzeke dagoen kantitatea jasotzeko eskubidea galduko da.

R. ERREKURTSOAK:

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko hartzen ahal diren administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN Hartu beharreko beste batzuk:

1. Emandako dirulaguntza diruz lagundutako proiektua egiteko erabiliko da. Dirulaguntza beste xede baterako erabiltzeak dirulaguntza kobratzeko eskubidea galtzea edo zenbatekoa itzuli behar izatea dakar. Era berean, dirulaguntza emateko aintzat hartu diren baldintzak aldatzen badira, eta, edozein kasutan, deialdi honetan baimendutako kasuetatik at beste diru-iturri batzuk eskuratzen badira, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzen ahalko da.

2. Diruz lagundutako kantitatea gorabehera, justifikatu beharreko aurrekontua aurkeztutako aurrekontua izanen da (eta deialdian onartua). Entitateak deialdian aurkeztutakoa baino kopuru txikiagoa justifikatzen badu, emandako dirulaguntza proportzio berean murriztuko da.

Dirulaguntza emateko proposamena ez badator bat eskatutakoarekin, eta erakundeak uste badu ezin duela proiektu bera egin, beste dokumentu bat aurkeztu beharko du. Agiri horretan, proiektuan izandako aldaketak bakarrik jasoko dira, eta beste VI. eranskin bat. Finantzaketa-plan hori hartuko da kontuan justifikazioan (kontuan izan behar da proiektua funtsean aldatzen bada lortutako puntuazioa ere aldatu ahal izanen dela).

3. Deialdi honetan dirulaguntza bat emateak ez du eskubiderik sortuko etorkizuneko deialdietan dirulaguntza berriak jasotzeko.

4. Udalaren eta dirulaguntza jasotzen duten entitateen arteko harremanetan sakontzeko, Udaleko teknikariek eginen den jardueraren bat bisitatzen ahalko dute, horrela elkarteek egiten duten lana sakonago ezagutzeko.

5. Datu pertsonalen babesa: Iruñeko Udala arduratuko da Kulturako, Jaietako, eta Kiroleko Alorrak emandako dirulaguntzaren kudeaketa egiteko xedez erabiliko diren datu pertsonalez. Datuak, legeek aginduta, Dirulaguntzen Datu-base Nazionalari jakinaraziko zaizkio, eta Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko Foru Legearekin bat argitaratuko dira. Eskubidea duzu datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko –zuzenak ez badira– eta horiek ezabatzeko Erregistro Orokorra (Kale Nagusia 2, 31001, Iruña) edo egoitza elektronikora joaz. Pribatutasun-politikan (www.pamplona.es/eu) kontsultatzen ahal dituzu tratamendu-zerrenda eta informazio osagarria.

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☒ I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

Soilik aurkezpen telematikoa nahitaezkoa ez den kasuetan

☒ II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

Soilik aurkezpen telematikoa nahitaezkoa ez den kasuetan

☒ III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAI NEAN.

Soilik aurkezpen telematikoa nahitaezkoa ez den kasuetan

☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA. Eskerak aurkezteko eta dirulaguntza justifikatzeko jarraibideak:

V., VI., VII., VIII., IX., X., eta XI. ERANSKINAK aurkeztu behar dira bai telematikoki bai ez-telematikoki:

DIRULAGUNTZAREN ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTEKO

V. ERANSKINA. Deskribapen-txostena.

VI. ERANSKINA. Finantzaketa-plana.

VII. ERANSKINA. Datuen gaineko kontsulta egiteko baimena (hala badagokio).

EBAZPEN-PROPOSAMENAREN ONARPENA ESKATZEN DENEAN AURKEZTEKO

VIII. ERANSKINA. Adierazpena, azpikontratutako entitateei buruz.

IX. ERANSKINA. Ebazpen-proposamenaren onarpena.

JUSTIFIKAZIO-FASEAN AURKEZTEKO

X. ERANSKINA Erantzukizunpeko adierazpena justifikazio-memoriari buruz.

XI. ERANSKINA: PDFa, Justifikazio-memoria ekonomikoarekin.

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*